

2019-02-05-etik indarrean

ATZERRIKO ETA/EDO DIBISETAN ERAGIKETAK

- 50. EPIGRAFEA: BALDINTZA OROKORRAK** Kanpoko transakzioen ondorioz, atzerriko dirutan egindako eragiketen eta diru nazionalean egindako eragiketen komisioen gehienezko tarifak, baldintzak eta gastuak, Espainiako bezeroei aplikagarriak.
- 51. EPIGRAFEA: TURISMOA ETA BILLETEEKIN EGINDAKO BESTE ERAGIKETA BATZUK.**
- 52. EPIGRAFEA: KANPOKO ORDAINKETAK.**
- 53. EPIGRAFEA: KANPOKO KOBRANTZAK.**
- 54. EPIGRAFEA: ATZERRIKO MONETAN EDO EUROTAN EMANDAKO KREDITUAK, MAILEGUAK, AURRERAKINAK ETA FINANTZAKETAK.**
- 55. EPIGRAFEA: HAINBAT ZERBITZU.**
- 56. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK. ATZERRIRAKO TRANSFERENTZIAK.**
- 57. EPIGRAFEA: ABALAK ETA BESTE BERME BATZUK.**
- 58 EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK. AGERIKO GORDAILUAK ATZERRIKO MONETAN.**
- 59. EPIGRAFEA: EPERAKO GORDAILUAK ATZERRIKO MONETAN.**

50. EPIGRAFEA: BALDINTZA OROKORRAK

Kanpoko transakzioen ondorioz, atzerriko dirutan egindako eragiketen eta diru nazionalean egindako eragiketen komisioen gehienezko tarifak, baldintzak eta gastuak, Espainiako bezeroei aplikagarriak.

50.1: Aplikazio-eremua

Tarifa hau gure bezero egoiliar zein ez-egoiliarrei aplikatuko zaie, eurotan egindako kanpoko transakzioetan eta atzerri-monetako eragiketetan, kanpoko funts-transakzioetan izan ezik.

Kanpoko funts-transferentzien tarifak honako epigrafe honetan daude jasota: “Kanpoko funts-transakzioen ondorioz, bezeroei aplikatuko zaizkien komisioen gehienezko tarifak, baldintzak eta gastuak”.

Barne-merkatuan eurotan egindako eragiketei dagozkien tarifak honako epigrafe hauetan daude jasota: “Barne-merkatuan diru nazionalean egindako eragiketen ondorioz, bezeroei aplikatuko zaizkien komisioen tarifak, baldintzak eta gastuak, Espainiako Bankuan aurkeztuak”.

50.2: Edukiera barik.

50.3: Truke-balio aplikagarria

Euroak atzerriko moneta bihurtzeko aplikatu beharreko truke-balioa askatasunez hitzartuko da, 3.000 eurotik beherako eragiketetan izan ezik, horrelakoetan truke-balioa entitateak egunero argitaratzen duena izango baita. EDBko moneten arteko bihurtetako egiteko, moneta horietako bakoitzarentzat euroarekiko finkatutako truke-balio aldaezina erabiliko da.

50.4.- Gastuak eta zergak

Bezero lagatzaile edo agindu-emailearen kontura joango dira ordaindu beharreko zergak, posta- edo telegrama-gastuak, bezeroak eskatutako itzulpen-gastuak, telexa, SWIFTa, faxa, tinbrea eta berandutzako interesak. Orobat, bezeroaren kontura joango dira ordaindutako bestelako gastuak, zergak, komisioak eta bertako edo atzerriko korrespontsalen gastuak eta CESCEko aseguru-primak edo antzekoak, halakorik balego, baita azken horiek ordaindu behar badute ere, errefusatzan dituztenak.

Bidalketa- eta/edo komunikazio-gastuak ere bezeroen kontura joango dira, Posta eta Komunikazio Tarifa Ofizialen arabera.

Banaketa- edo mezularitza-sistema pribatuak erabiliz gero, sortutako gastuak ere bezeroaren kontura joango dira, berak eskatutako zerbitzuak badira.

50.5: Atzerrian bizi diren komisio-emaileen gastuak

Bertan bizi ez den lagatzaile edo agindu-emaileak gastu eta komisio guztiak hemen bizi den onuradunaren edo igorpendunaren kontura izatea agintzen duenean, Atzerrian bizi diren komisio-emaileentzako Baldintza Tarifaren arabera eta Tarifa honen arabera dagozkionak azken horri kobratuko zaizkio.

50.6: Atzerriko moneta (dibisak edo billeteak) erosi edo saltzeagatiko komisioa

Euroak atzerriko monetara (dibisak edo billeteak) edo atzerriko monetak eurora zein atzerriko moneta bat atzerriko beste moneta batera bihurtzeagatik ondorengo komisioa aplikatuko da be-ti:

- Kutzak likidatutako eragiketetan: %o 20ko komisioa. Gutxienez 9 Euro.
- Bezeroaren kontuaren bidez likidatutako eragiketak: %o 15eko komisioa. Gutxienez 9 Euro.

51. EPIGRAFEA: TURISMOA ETA BILLETEEKIN EGINDAKO BESTE ERAGIKETA BATZUK.

51.1: Atzerriko billeteekin egindako eragiketak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa		Eskukapenagatiko komisioa	
		%o	Gutxienez	%o	Gutxienez
51.1.1	Atzerriko billeteen salerosketa:				
	➤ Kutxan eskudirutan ordainduta	20	9,00	--	--
	➤ Bezeroaren kontuan ordainduta / zordunduta	15	9,00	--	--
	➤ Beste dibisa bateko txekeak edo ordainketa-aginduak entregatuta	20	6,01	--	--

51.2: Bidai txeeen salerosketa dibisetan

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa	
		%o	Gutxienez
51.2.1	Erosketa:		
	➤ Kutxa bidez likidatuta	13,5	9,02
	➤ Kontu bidez likidatuta	5	6,01
51.2.2	Salmenta:		
	➤ Kutxan likidatuta	20	9,02
	➤ Kontuan likidatuta	12	6,01

Oharra: Dokumentu horiek kobrantza-gestioan jasotzen direnean, tarifa honetako 53.2 epigrafeko komisioak aplikatuko dira.

51.3: Euro-txekeak erostea

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa	
		%o	Gutxienez
51.3.1	Atzerriko monetan:		
	➤ Kutxan likidatuta	10	9,02
	➤ Kontuan likidatuta	5	6,01
51.3.2	Eurotan:	--	--

52. EPIGRAFEA: KANPOKO ORDAINKETAK.
52.1: Atzerrirako txekeak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa		
		Bakarra dokumentu bakoitzeko	%o	Gutxienez
52.1.1	Kutxak likidatuta		12,5	18,03
52.1.2	Kontuan likidatuta		5	9,02
52.1.3	Ezeztapena	15,03		
52.1.4	Stop Payment jaulkipena	18,03		

1. oharra: Eragiketa horietakoren bat dibisetan finantzatzen bada, 54.1 epigrafeko komisioa ere aplikatuko da.

52.2: Atzerriko sorta sinpleak eta dokumentarioak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa		
		Bakarra	%o	Gutxienez
52.2.1	Sorta sinpleak		9,00	35,00
52.2.2	Sorta dokumentarioa		12,00	40,00
52.2.3	Onarpena		1,50	30,00
52.2.4	Atzerapena, luzapena edo berandutzea (hilean)		0,5	15,03
52.2.5	Protestoa edo ez ordaintzearen aitortpena. Horretaz aparte protestoaren gastuak ere sartuko dira	18,03		
52.2.6	Erregistratutako beste entitate batera aldatzea (efektu bidez)	18,03		

1. oharra: Epigrafe honetan aurreikusten diren komisioak sorta guztiei aplikatuko zaizkie, baita lagatzaileak itzuli, ordaindu gabe utzi edo erreklamatzan dituenean ere.

2. oharra: Hauxe hartuko da sorta sinpletzat: Letra, Txeke, Ordainduko edo bestelako sortagiri bakarrak osatzen duena. Sorta beste edozein dokumenturekin batera datorrenean, nahiz eta fotokopia izan, sorta dokumentariotzat hartuko da.

3. oharra: Ageriko sortetan, atzerapen, luzapen edo berandutzearen komisioa sorta igorpen-duari aurkeztu eta hogeita hamar egun naturaletik aurrera kobratuko da; ordainketa diferituetan, berriz, mugaegunetik hogeita hamar egun naturaletik aurrera.

4. oharra: Eragiketa hauetakoren bat dibisetan finantzatzen bada, 54.1 epigrafeko komisioa ere aplikatuko da.

52.3: Kreditu sinpleak, Dokumentarioak, Standby, Onarpenak eta Atzerriko Ordainketa Agindu dokumentarioak

Komisioa	Epigrafea eta Eragiketa-mota			
	52.3.1.- Ezeztagarria		52.3.2.- Ezeztazina	
	%o	Gutx.	%o	Gutx.
Irekitzeagatik (*) (Behin bakarrik)	7,5	60,00	7,5	60,00
Ezeztazintasunagatik (*) (Hiruhilekoa, ezin da hainbanatu)	--	--	6	45,00
Ordainketa diferituagatik (*) (Hiruhilekoa, hiletan hainbanatu daiteke)	5	18,03	5	30,00
Aldatzeagatik (3. oharra)	Bakarra 18,03		Bakarra 18,03	
Desadostasunagatik (6. oharra)	--	--	Bakarra 45,00	

(*): Komisio hauek irekitzeko agindua ematean kobratuko dira.

1. oharra: Ordainketa diferituaren komisioa ordainketa atzeratu den epearen arabera kalkulatuko da.
2. oharra: Inportazioko kreditu sinple edo dokumentarioetan interesak kobratuko dira Korrespontsalak benetan ordaintzen duenetik Espainiako entitate erregistratuak benetan baloratu eta dibisak ordainketa estaltzeko jartzen dituen arteko egunen arabera eta agindu-emailearen kontuan edo Korrespontsal ordaintzailearenean dagoen saldoa gorabehera.
3. oharra: Kreditu sinplearen edo dokumentarioaren agindu-emaileak berori aldatzea eskatzen duenean kobratuko da komisio hau, zenbatekoa handitzeak edo aplikazio-epea luzatzeak sortzen dituen komisio osagarrietatik aparte.
4. oharra: Revolving kredituetan (Txandakakoak), irekitzean kobratutako komisioez aparte, berritzen den bakoitzean "berriztapen" komisioa ere aplikatuko da, hain zuzen, %o 2,5ekoa (gutxienez 18,03 €).
5. oharra: Hauetako eragiketaren bat Dibisatan finantzatzen bada, 54.1 epigrafean jasotako komisioa aplikatuko zaio.
6. oharra. Negoziaturiko dokumentuetan desadostasunik ageri bada eta, horren ondorioz, ordainketa egin aurretik edo adostasuna eman aurretik agindu-emaileak alde zuzeneko kontsulta behar bada, komisioa aplikatuko da. Horretarako, beharrezkoa da, ezadostasunak daudenean, ordainketa baztertu beharrean, kudeaketa egitea adostea agindu-emailearekin. Komisio hori agindu-emaileari kobratuko zaio dokumentuen lagatzaileak onartzen ez bada.

53. EPIGRAFEA: KANPOKO KOBRANTZAK.

53.1: Negoiazioan hartutako Atzerriko edo Espainiako Kreditu Entitateen kontura diren atzerriko monetadun txekak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa			
		Negoiazioa		Itzulketa	
		%o	Gutxienez	%o	Gutxienez
53.1.1	Kontuan likidatuta	6	15,00	20	18,00
53.1.2	Kutxan likidatuta	12	18,00	20	15,03

1. oharra: Era honetako dokumentuak kobrantza-gestioan hartzen direnean, 53.2 epigrafeko komisioak aplikatuko dira.
2. oharra: Bidai txekerei eta eurotxekerei Tarifa honetako 51.2 eta 51.3 epigrafeetan zehazten direnak aplikatuko zaizkie hurrenez hurren.
3. oharra: Negoiazioan hartutako txekak beti bezeroari likidatuko zaizkio, bukaera onari baldintzatuta.
4. oharra: Eragiketa hauek finantzatzeko eskatuz gero, tarifa honen 54.1 epigrafean adierazten dena ere aplikatuko da.

53.2: Negoiazioan edo Kobrantza Gestioan hartutako Atzerriko sorta sinpleak eta dokumentarioak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa			
		Kobratu, Gestionatu edo Negoizatzeagatik		Itzultzeagatik	
		%o	Gutxienez	%o	Gutxienez
53.2.1	Sorta sinpleak	9	30,00	20	15,03
53.2.2	Sorta dokumentarioak	12	45,00	20	15,03

1. oharra: Hauxe hartuko da sorta sinpletzat: Letra, Txeki, Ordainduko edo bestelako sorta-agiri bakarrak osatzen duena. Sorta beste edozein dokumenturekin batera datorrenean, nahiz eta fotokopia izan, sorta dokumentariotzat hartuko da.
2. oharra: Negoiazioan hartutako eragiketek, komisioaz aparte, interesak sortuko dituzte negozio-egunetik likidazio-egunera arte, egunik hobaritu gabe.
3. oharra: Atzerriko sorta sinpleen edo dokumentarioen gaineko euro aurrerakinek, aurrerakinaren egunetik likidazio-egunera arte sortuko dituzte interesak, egunik hobaritu gabe.
4. oharra: Sorta 180 egunetik aurrera mugaeguneratzen edo jasotzen bada, %o 3ko zaintza-komisioa (bezeroak aurrez eskatuta) ere kobratuko da 180 egun horietatik pasatzen diren egunen arabera. Hiruhileko edo zati bakoitzeko ordaindu beharko da eta hila-beteetan hainbanatu ahal izango da. Gutxienerako komisioa 9,01 €koa izango da.

5. oharra: Komisioak sorta entregatzean kobratuko dira eta dibisetan dauden eragiketek Eurotan duten balioa hartuko da oinarritzat, komisio horiek aplikatzen diren egunean indarrean dagoen truke-tasa erabiliz.
6. oharra: Eragiketa hauek finantzatzeko eskatuz gero, tarifa honen 54.1 epigrafean adierazten dena ere aplikatuko da.

53.3 Atzerriko Kreditu dokumentarioak, Stand-By Kreditu Gutunak, eta Ordainketa Agindu dokumentarioak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa			
		Eragiketa bakoitzeko		Arrisku bakoitzeko	
		%	Gutxienez	%	Gutx.
53.3.1	Aurrez abisatzea		15,03 (finkoa)		
53.3.2	Jakinaraztea (8.oharra)	0,75	45,00		
53.3.3	Erabiltzea:				
	➤ Baieztatu gabe	11	60,00		
	➤ Baieztatuta	11	60,00	6 (hiru hiletan)	60,00
53.3.4	Ordainketa diferitua			1 (hilean)	60,00
53.3.5	Hirugarren banku bati ordaintzeko eskatzea		60,00 (finkoa)		
53.3.6	Beste onuradun bati transferentzia egitea	4	60,00		
53.3.7	Aldaketa (3. oharra)		21,00 (finkoa)		
53.3.8	Kitapena (4. oharra)		21,00 (finkoa)		

1. oharra: Kredituaren baldintzetako bat gastuak onuradunaren kontura izatea bada, onuradunari adierazi diren komisioak kobratuko zaizkio.

Gastuak banku jaulkitzailearen kontura badira, atzerriko komisio-emaileentzako tarifa aplikatuko zaio eta onuradunari 53.3.3. atalean aipatzen den erabiltzeagatik komisioa baino ez zaio kenduko.

2. oharra: Aurrez abisatzea: Horrelakoetan, edozein kreditu-motatan kobratuko da.
3. oharra: Aldaketa: Kredituan aldaketaren bat gertatzen den bakoitzean kobratuko da komisio hori, kredituaren zenbatekoa handitzeagatik edo indarraldia luzatzeagatik egokitzen diren komisioez gain.
4. oharra: Kitapena: Kreditua erabili gabe amaitzen bada, kitapen-komisioa kobratuko da, dagozkion komisioekin batera.

5. oharra: Dibisetan edo eurotan emandako aurrerakinek negoziazio-egunetik hasi eta errenbultsoaren balio-egunera arte sortuko dituzte interesak.
6. oharra: Baieztatutako kredituetan arrisku-komisioa handitu egin daiteke arrisku-herrialdeak duen kategoriaren arabera (Espainiako Bankuaren 4/1991 zirkularreko 10. Arauan bildutako irizpideak aplikatuz zehazten da). Gehienez ere %0,8raino handitu ahal izango da (gutxienez 30,05 eurokoa izango da).
7. oharra: Aipatutako eragiketak finantzatzeko eskaera eginez gero, tarifa honen 54.1 epigrafean adierazten dena ere aplikatuko da.
8. oharra: Behin bakarrik kobratu ahal izango da, jakinarazpena egiten den unean.

54. EPIGRAFEA: ATZERRIKO MONETAN EDO EUROTAN EMANDAKO KREDITUAK, MAILEGUAK, AURRERAKINAK ETA FINANTZAKETAK.

54.1: Dibisetako edo eurotako maileguak eta finantzaketak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa		
		%o	Minimoa	Bakarra
54.1.1.	Finantza-maileguak			
	➤ Irekiera (1. oharra):			
	▪ Hipotekazkoak	20	510,86	
	▪ Gainontzekoak	30	100	
	➤ Kitapen aurreratua (2. oharra)	40	-	
	➤ Amortizazio aurreratua (3. oharra)	20	-	
	➤ Azterketa-gastuak (4. oharra)	-	-	210,35
	➤ Mugaeguneratutako posizio zordunen erreklamazioa (5. oharra)	-	-	35,00
	➤ Eurotako disposizioen likidazioa	15	9	
	➤ Amortizazioen bidez Euroen kontra dibisa erostea	15	9	
54.1.2.	Finantzaketa Dibisetan edo eurotan (6. oharra)			
	➤ Eurotako disposizioen likidazioa	15	9	
	➤ Amortizazioen bidez Euroen kontra dibisa erostea	15	9	
	➤ Irekiera-komisioa (7. oharra)	10	12	
	➤ Mugaeguneratutako posizio zordunen erreklamazioa (8. oharra)	-	-	35,00

1. oharra: Irekiera komisioa maileguaren gehienezko mugaren arabera izango da eta eragiketa indarrean sartzean likidatuko da.

2. oharra: Interes aldagarria duten hipotekazko maileguetan komisioa kitatutako saldoaren %o 10ekoa izango da.
 Kontsumorako kredituaren legea bete behar duten maileguen eragiketetan komisioa kitatutako saldoaren %o 15ekoa izango da.
 2/1994 Legeak arautzen dituen interes aldakorreko hipoteka-maileguei lotutako eragiketa-subrogazioetan, kitatzen den zenbatekoaren % 1eko komisioa kobratuko da, 2003ko apirilaren 27a baino lehen formalizatutako eragiketetan, eta % 0,5eko komisioa, berriz, data horren ondoren formalizatutako eragiketetan.
 41/2007 Legean xedatutakoari jarraiki, 2007ko abenduaren 9tik aurrera formalizatutako hipoteka- eta mailegu-kredituetan ez da kobratuko inolako komisiorik amortizazio eta kitapen aurreratuengatik, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- Hipoteka-mailegu edo –kredituaren oinarria etxebizitza izatea, eta mailegu-hartzailea pertsona fisikoa.

- Mailegu-hartzailea Sozietate Zergan enpresa txikien zerga-erregimena ordaintzen duen pertsona juridikoa izatea.

Horrelakoetan, atzera egiteagatiko konpentsazioa kobratuko da: aurretiaz amortizatutako kapitalaren % 0,5ekoa, amortizazio aurreratua kredituaren edo maileguaren lehen bost urteetan gauzatzen bada, eta % 0,25ekoa, lehen bost urteak baino geroago gauzatzen bada.

3. oharra: Interes aldagarria duten hipotekazko maileguetan komisioa amortizatutako saldoaren %o 10ekoa izango da.
Kontsumorako kredituaren legea bete behar duten maileguzko eragiketetan komisioa amortizatutako saldoaren %o 15ekoa izango da.
2/1994 Legeak arautzen dituen interes aldakorreko hipoteka-maileguei lotutako eragiketa-subrogazioetan, kitatzen den zenbatekoaren % 1eko komisioa kobratuko da, 2003ko apirilaren 27a baino lehen formalizatutako eragiketetan, eta % 0,5eko komisioa, berriz, data horren ondoren formalizatutako eragiketetan.
41/2007 Legean xedatutakoari jarraiki, 2007ko abenduaren 9tik aurrera formalizatutako hipoteka- eta mailegu-kredituetan ez da kobratuko inolako komisiorik amortizazio eta kitapen aurreratuengatik, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:
- Hipoteka-mailegu edo –kredituaren oinarria etxebizitza izatea, eta mailegu-hartzailea pertsona fisikoa.
 - Mailegu-hartzailea Sozietate Zergan enpresa txikien zerga-erregimena ordaintzen duen pertsona juridikoa izatea.
- Horrelakoetan, atzera egiteagatiko konpentsazioa kobratuko da: aurretiaz amortizatutako kapitalaren % 0,5ekoa, amortizazio aurreratua kredituaren edo maileguaren lehen bost urteetan gauzatzen bada, eta % 0,25ekoa, lehen bost urteak baino geroago gauzatzen bada.
4. oharra: Hipotekazko maileguen finantza-baldintzen gardentasunari buruzko 1994ko Maiatzaren 5eko Ordenak eragiten dituen maileguei ez zaizkie gastu horiek aplikatuko.
5. oharra: Erreklamaturako ordaindu gabeko kuota bakoitzarengatik aldi bakar batean jasoko da komisioa, eta erregularizatzeko gestioen gastuen ordaina izango da (telefonoa, erreklamazio-gutunak idatzi eta igortzea, telegramak edota desplazamenduak).
6. oharra: Finantzatutako eragiketa nagusia tramitzeko (dokumentazio-kreditua, bidalketa, txekoa edota kanporako edo kanpotik ordainketen agindua) komisioak kobratu arren, beste komisio hau ere jasoko da.
7. oharra: Linea formalizatzerakoan edo linearen bitartez finantzatutako eragiketa burutzean kobratuko da komisio hori.
8. oharra: Erreklamaturako ordaindu gabeko finantziario bakoitzarengatik aldi bakar batean jasoko da komisioa, eta erregularizatzeko gestioen gastuen ordaina izango da (telefonoa, erreklamazio –gutunak idatzi eta gordetzea, telegramak edota desplazamenduak).

55. EPIGRAFEA: HAINBAT ZERBITZU.
55.1: Dibisen epekako salerosketa

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa		
		Bakarra eragiketa bakoitzeko	%o	Gutxienez
55.1.1	Kontratazioa		1	15,03
55.1.2	Ez betetzeagatiko likidazioa		2	15,03
55.1.3	Aurretiazko likidazio partziala	18,03		

55.2: Dibisen gaineko aukerak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa	
		%o	Gutxienez
55.2.1	PUT aukeragatik	1	15,03
55.2.2	CALL aukeragatik	1	15,03

55.3: Hainbat tramitazio

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa
55.3.1	Espainiako Bankuari kobrantza edo ordainketa jakinaraztea. (Bertan bizi ez direnen euro-kontuetan gauzatutako zordunketa eta ordainketak Espainiako Bankuari jakinarazi eta tramitatzearen kostua kobratu egingo da, 50.000 €-tik gorako zenbatekoak direnean eta moneta-bihurketarik ez dagoenean)	6,01 €
55.3.2	Gerora justifikatutako ordainketa aurreratuak kontrolatzea	12,02 € eragiketa bakoitzeko
55.3.3	Bezeroaren eskariz eta izenean S1 eta B3 formularioak (txanponei, banku-billeteei edo eramailearen izenean dauden banku-txekeen mugimenduei buruzkoak) betetzea	6,01 € betetzeko unean jaso beharreko formulario bakoitzeko
55.3.4	Egiaztagiri-eskaera fax bidez	9 €

55.4: Bezeroen kontura diren gestio eta informazio-gastuak

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa
55.4.1	Ondorengo ziurtagiriak egiteagatik	
	➤ Saldoenak (1. oharra)	30 €
	➤ Inbertsioarenak	30 €
	➤ Auditoretzenak	30 €
	➤ Beste ziurtapen batzuk	30 €
55.4.2	Erakunde ofizialen aurrean tramitatu, egiaztatu eta aurretiazko baimena eskatu	18,03
55.4.3	Gutxienez SEI hilabete lehenago tramitatutako eragiketak jakinarazi	15,03
55.4.4	Nazioarteko txosten komertzialak	120 €
55.4.5	Harreman komertzialak	30,05
55.4.6	Gestio berezidun harreman komertzialak	120,20
55.4.7	Espainiatik kanpo edo Espainian bizitzearen ziurtagiria gestionatu, lortu eta berritu (2. oharra)	15,03

1. oharra: Komisio hori ez da aplikatuko “Saldoa zero” ziurtagirietan eta arauzko manua betez igorritakoetan.

2. oharra: Espainiako ez-egoiliarra edo egoiliarra izatearen ziurtagiria “kudeatu edo berritzeagatiko” komisioa bezeroak zerbitzu horiek espresuki eskatzen dituzenean soilik jasoko da.

56. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK. ATZERRIRAKO TRANSFERENTZIAK.

Epigrafe honetan jasotako tarifak gehienezkoak dira, eta bezero guztiei aplikatuko zaizkie (kontsumitzen dutenei eta kontsumitzen ez dutenei).

1.- BALDINTZA OROKORRAK.**1. oharra: ATZERRIRAKO TRANSFERENTZIEN DEFINIZIOA.**

Pertsona fisiko edo juridiko baten aginduz, diru kopuru jakin bat ematen zaio onuradunari, fondoak igortzeko edo hartzeko aurreikusten den aukerako edozein bide erabiliz. Horrelako transferentziek honako ezaugarri bereizgarri hau dute: agindu-emaileak (igorlea izanez gero) edo onuradunak (hartzailea izanez gero) Espainian igortzen edo hartzen ditu fondoak, eta onuradunak edo hartzaileak, aldiz, hirugarren Estatu batean (Europar Batasunekoak barne hartuta).

2. oharra: BANKUKO EGUN BALIODUNAREN DEFINIZIOA.

Ordainketa-eragiketan parte hartzen duten agindu-emailearen edo onuradunaren ordainketa-agindua exekutatzeari begira, sukurtsalak irekita dauden egunak izango dira, Entitatearen-tzat, egun baliadunak. Bitarteko telematikoz kontratatutako kontuetan, ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak egoitza duen herriari dagokion egutegia hartuko da aintzat.

3. oharra: BEZEROEN ERREKLAMAZIO ETA ERREKURTSO BIDEAK.

Atzerrirako transferentzien izapideen inguruan bezeroaren eta Entitatearen artean desadostasunik edo auzirik sortuz gero, bezeroak kexa edo erreklamazioa egin ahal izango du, berak zuzenean edo egoki egiaztatutako ordezkariaren bidez. Ildo horretan, paperezko euskarriak edo baliabide informatikoak, elektronikokoak edo telematikokoak erabili ahal izango ditu.

Aipatutako kexa eta erreklamazioetan, dagozkien sinadurez gain, honako datu hauek guztiak zehaztuko dira: interesdunaren izena, abizenak, helbidea, NAN, kexaren edo erreklamazioaren arrazoia, bezeroaren aitortpena, tokia, data eta sinadura. Bezeroaren aitortpenari dagokionez, kexaren edo erreklamazioaren inguruan administrazio-, arbitraje- edo auzi-prozedurarik ez dagoela jakinaraziko du berariaz.

Kexa edo erreklamazioa zuzenean aurkeztu ahal izango du zerbitzuan edo Kutxako jende aurreko edozein sukurtsaletan. Helbide elektronikoa honako hau da:

BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA
CAJA LABORAL POPULAR, S. COOP.
J.M. Arizmendiarrjeta pasealekua Zk.g.
20500 – ARRASATE (GIPUZKOA)
Servicio.de.Atencion.al.Cliente@laboralkutxa.com

Bezeroen Arretarako Zerbitzuaren erantzuna desagokia irudituz gero, edo erreklamazioa aurkeztu eta handik bi hilabetera erantzunik jaso ez bada, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura (Alcalá, 50 – 28014 – Madrid) jotzeko aukera izango du bezeroak, idatziz betiere.

4. oharra: KOMISIOAK ETA GASTUAK ORDAINTZEKO AUKERAK.

Transferentziak gauzatzeko prozesuan esku hartzen duten entitateek (entitate igorlea, onuradunarena eta bitartekariak) kobratu egiten dute beren zerbitzuen truke.

Atzerrirako transferentzia-agindua eman duen bezeroak eragiketaren komisioak eta gastuak nola banatzea nahi duen adierazi behar du. Hau da:

- Gastu eta komisio guztiak berak ordainduko dituen (“OUR” aukera).
 - Onuradunarekin erdibana ordainduko dituen (“SHA” aukera).
 - Gastu eta komisio guztiak onuradunak ordainduko dituen (“BEN” aukera).
- “SHA” aukera: entitate agindu-emaileak aginduaren zenbateko osoaren transferentzia egiten du, eta zenbateko horren eta eragiketaren komisioak eta gastuak bezero agindu-emaileari kobratzen dizkio.

Prozesuan esku hartzen duten gainerako entitateek beren komisio eta gastuak hartutako zenbatekotik ken ditzakete, eta zenbateko garbia onuradunari ordaindu.

Hitz batean, bezero agindu-emaileak entitate agindu-emailearen gastuak ordaintzen ditu, eta onuradunak gainerakoak.

- “BEN” aukera: bezero agindu-emailearen entitateak bere gastu eta komisioak jatorrizko aginduaren zenbatekotik kobratu eta geratzen den kopuruaren transferentzia egiten dio onuradunari.

Prozesuan esku hartzen duten gainerako entitateek beren gastu eta komisioak hartutako zenbatekotik ken ditzakete, eta geratzen den kopurua onuradunari ordaindu.

- “OUR” aukera: agindu-emailearen entitateak aginduaren zenbateko osoaren transferentzia egiten du, eta zenbateko horren eta prozesu osoaren komisio eta gastu guztiak onuradunari kobratzen dizkio. Beraz, onuradunak hartutako zenbatekoan ez da inolako kenketarik egiten.

5. oharra: JAULKITAKO TRANSFERENTZIAK ONARTZEKO DATAREN DEFINIZIOA.

Inprimakia: Laboral Kutxak bezeroaren transferentzia-eskaera behar bezala beteta jasotzea, horretarako prestatuta dagoen inprimakiaren edo bitarteko elektronikoaren bidez eta Laboral Kutxak eskatzen duen informazio guztiarekin, hurrengo 6. atalean azaldutakoari jarraiki.

Finantza-estaldura: behar adinako finantza-estaldura lortzea.

Laboral Kutxak bezeroari baldintza edo informazio osagarriarik eskatzen ez badio, eskaeraren inprimakia Entitatera iritsi ondorengo laneguna hartuko da, asko jota, transferentziaren onarpen-datatzat.

6. oharra: BEZEROAK EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA, ENTITATEAK TRANSFERENTZIA ONAR DEZAN.

Hona hemen Laboral Kutxak transferentzia onar dezan bezeroak eman beharreko informazioa:

- Agindu-emailearen bezeroaren kontu-kodea edo IBAN delakoa, leihatilan eskudirua emanaz gauzatzen diren aginduetan izan ezik.

- Agindu-emailearen izena edo izen soziala eta helbide osoa. Azken datu hori Laboral Kutxan kontua irekita ez duten bezeroei eskatzen zaie.
- Onuradunaren izena edo izen soziala eta helbide osoa.
- Onuradunaren erakundearen/sukurtsalaren SWIFT (BIC) kodea. Epigrafe honetako 3. ataleko transferentzietarako, helburuko abonua edo ordainbidea ahalbidetuko duen onuradunaren zenbaki osoa.
- Transferentziaren zenbatekoa eta dibisa.
- Komisioak eta gastuak ordaintzeko modua (SHA, BEN edo OUR).

Bezeroak ez baditu datu horiek guztiak ematen eta, hala ere, transferentzia egiteko eskaera egiten badu, Laboral Kutxak eskubidea izango du, eskaera onartu ala ez erabakitzeko eta, 4. atalean “Zerbitzu osagarriak” aurreikusitakoari jarraiki, eragiketarako beste baldintza batzuk ezartzeko.

7. oharra: TRUKE TASA.

Bezeroari zordundutako dibisa eta onuradunari ordaindu beharrekoa bat ez badatoz, edo alderantziz, bezeroari ordaindu beharreko dibisa eta igorritako transferentziarena berberak ez badira, honako truke-tasa hauek ezarriko dira: entitateak 3.000 €-tik beherako zenbatekoentzat edo kopuru baliokideentzat egunero argitaratzen dituenak, edo entitatearekin batera merkatu-kotizazioen arabera ezarritakoak. Horren arabera finkatuko dira transferentziaren onarpen-datako salmenta-tasa edo ordainketa-datako erosketa-tasa.

2.- ATZERRIRAKO TRANSFERENTZIAK EUROPAKO ESPARRU EKONOMIKOKO ESTATU KIDEEN ARTEAN.

APLIKAZIO EREMUA.

Atal honetan bildutako tarifak aplikatuko zaizkie ordainketa zerbitzuei buruzko azaroaren 13ko 16/2009 Legeak eta 2009ko irailaren 16ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 924/2009 Erregelamenduak (EE) (260/2012 Erregelamenduak (EE) aldatu du) araututako transferentzia guztiei.

Hau da, estatuan eurotan egindako transferentzietan eta Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideen artean (Europar Batasuneko kide diren herrialdeak, Liechtenstein, Norvegia eta Islandia) eurotan, koroa suediarretan edo leu errumaniarretan SHA gastuekin (gastu partekatuak) kontutik kontura egindakoei, eta betiere eragiketa egitean Espainian kokatutako erakunde batek esku hartu badu kontuan ordaintzeko helburuarekin.

Hau da, pertsona fisiko batek hasi behar du transferentzia, Espainian, Europar Batasuneko edozein herrialdean, Liechtensteinen, Norvegian eta Islandian kokatutako erakundearen edo erakunde-sukurtsalaren bitartez, onuradunak daukan kontu batean dirua sartzeko, eta kontu hori Europako Esparru Ekonomikoko beste herrialde batean kokatutako erakunde edo erakunde-sukurtsal batean irekita egon daiteke, edo bestela Espainian, baldin eta transferentzia atzerritik badator.

GASTUAK JASANARAZTEKO AUKERA.

SHA aukera- Ordainketa-zerbitzuei buruzko azaroaren 13ko 16/2009 Legeari jarraiki, transferentzietan esku hartzen duten ordainketa-zerbitzuetako bi emaileak Europako Esparru Ekonomikoan badaude, eta eragiketak eurotan, koroa suediarretan edo leutan egiten badira, agindu-emaileak eta ordainketa-eragiketaren onuradunak partekatuko dituzte gastuak.

Agindu-emaileak agindu-emailearen erakundeak kobratutako gastuak ordainduko ditu, eta onuradunak, berriz, erakunde onuradunak kobratutako gastuak. Erakunde agindu-emaileak oso-osorik transferituko du aginduaren zenbatekoa, eta agindu-emaileari likidatuko dio aginduaren zenbatekoa gehi komisio eta gastuak.

EMANDAKO TRANSFERENTZIAK	SHA transferentzia-izapideagatiko komisioa		
	%	Gutxienekoa	Gehienekoa
Transferentzia arrunta (kontuan zordundua)			
▪ Banako agindua	4,00	5,00	300
▪ Agindua transmisioan edo euskarri magnetikoan	3,50	5,00	300
Premiazko transferentzia [egun berean ordaintzeko, kontuan zordundua (1)].			
▪ Banako agindua	4,00	30,00	300
▪ Agindua transmisioan edo euskarri magnetikoan	3,50	25,00	300

- (1) Transferentzia hori egiterakoan, erakunde esku-hartzaileek prozedura bereziak erabiliz bermatzen dute funtsak zordunketa-egun berean ordaintzen direla, eta horretarako behar-beharrezkoa da agindua automatikoki izapidetzea. Tratamendu automatizatua ahalbidetzen duten ezaugarriak eduki behar ditu, hau da, zordunketa-kontuak eta ordainketa-kontuak BIC eta IBAN kode baliodunak oso-osorik zehaztuta.

JASOTAKO TRANSFERENTZIAK	SHA transferentzia-izapideagatiko komisioa		
	%	Gutxienekoa	Gehienekoa
Transferentzia arrunta (kontuan ordaindua)	0,075	2,00 €	75 €
Premiazko transferentzia (egun berean ordaintzeko)	0,075	2,00 €	75 €

Informazioa zuzena ez bada edo osatu gabe badago, Laboral Kutxa ahaleginduko da, ahal duen neurrian, transferentzia ordaintzeko behar dituen datuak lortzen, baina jatorrira ahalik eta lasterren itzultzeko eskumena ere baduela ahaztu gabe.

3.- EUOPAR BATASUNeko ESTATU KIDEEN ARTEKO TRANSFERENTZIA, 260/2012 (CE) ERREGELAMENDUAK ALDATUTAKO 2009KO IRAILAREN 16KO 924/2009 ERREGELAMENDUAK ARAUTUTAKO EZ BESTELAKOA, ETA ATZERRIAREKIKO GAINERAKO TRANSFERENTZIAK.

APLIKAZIO EREMUA.

Atal honetan bildu dira, bakar-bakarrik, ordainketa zerbitzuei buruzko azaroaren 13ko 16/2009 Legeak eta 2009ko irailaren 16ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 924/2009 Erregelamenduak (EE) (260/2012 Erregelamenduak (EE) aldatu du) arautu gabe dauzkan transferentzia guztiak

Hau da, atzerriarekiko transferentzia guztiak bildu dira, Espainiaren eta Europar Batasuneko beste estatu kide baten, Liechtensteinen, Norvegiaren eta Islandiaren arteko transferentziak (eta alderantzizkoak) izan ezik, eurotan edo herrialde horien beste edozein dibisatan egindakoak eta transferentzia agintzen den egunaren kanbio-tasaren arabera kalkulatuak, eta Europar Batasuneko edozein estatu kideetan, Liechtensteinen, Norvegiaren eta Islandian kokatutako erakunde baten kontu batean ordaintzeko helburuarekin.

JAULKITAKO TRANSFERENTZIAK	SHA/BEN komisioa		OUR komisioa	
	%o	Gutx.	%o	Gutx.
Onartua (prozesua erabat automatizatuta) Kontuan zorduntzekoa	6,00	15,00	7,00	36,00
Premiazko transmisioaren komisio osagarria (3)	0,05	20,00	0,05	20,00

- (1) Bezeroaren jarraibideen arabera egunean bertan exekututzen diren eragiketetarako, onuradunaren entitatearen kontuan egunean bertan (euroen kasuan) edo merkatuak ahalbidetzen duen lehen egunean (dibisen kasuan) ordaintzeko.

JASOTAKO TRANSFERENTZIAK	SHA eta BEN transferentziak izapidetzeko komisioa	
	%o	Gutxienez
Prozesua erabat automatizatuta duena (kontuan ordaintzekoa)	4,00 €	30,00 €

4.- ZERBITZU OSAGARRIAK

KONTZEPTU OSAGARRIAK	Transferentziak izapidetzeko komisioa		
	%o	Gutxienez	Gehienez
Eskudirutan ordaintzea edo kobratzea (kontuan zordundu beharrean, eskudirutan ordaintzen denean agindua).	3,00	6,00	75 €
(Jarraitu egiten du)			

KONTZEPTU OSAGARRIAK	Transferentziak izapidetzeko komisioa		
	%o	Gutxienez	Gehienez
<p>Datu gutxiegi edo okerreko datuak dituzten transferentzietan, aparteko komisio bat kobratuko da.</p> <p>Komisio hori bezeroak 6. baldintza orokorrean –Bezeroak eman beharreko informazioa, entitateak transferentzia onar dezan– aurreikusitako datu guztiak ematen ez dituenean bakarrik kobratu ahal izango da, baldin eta, entitateak eragiketa onartu eta bezeroari zer komisio dagokion jakinarazi ostean, bezeroak transferentzia-eskaera berresten badu.</p>	1,00	6,00 €	150 €
<p>Datuen bilaketa.</p> <p>Agindu-emaileak adierazietako kontuan onuradunaren izena agertzen ez bada titular edo baimendu gisa, edo BKK edo IBAN koderik ez badago edo okerrekoa bada, aparteko komisio bat kobratuko da, baldin eta, entitateak eragiketa onartu eta bezeroari zer komisio dagokion jakinarazi ostean, bezeroak transferentzia-eskaera berresten badu. Eskaera atzera botatzen badu, itzuli egingo zaio komisioa.</p>	3,00	10,00 €	150 €
<p>Banakako egiaztagiria.</p> <p>Transferentziak edo bestelako ordainketa-agindu anizkoitzen bat agintzen duenak, egindako likidazioaren laburpen-orriaz gain, ordainketa-agindu bakoitzeko banakako egiaztagiri bat eskatzea edo egiaztagiria onuradunari bidaltzeko eskatzea.</p> <p>Egindako likidazioaz gain, beste egiaztagiri bat igortzeko eskatzea onuradunak Laboral Kutxari.</p> <p>Transferentziaren agindu-emaileak onuradunari egiaztagiria mezu elektronikoa edo bestelako komunikazio-bitarteko elektronikoren bat erabiliz bidal diezaiola eskatzea Laboral Kutxari.</p> <p>Mezu elektronikoa edo bestelako komunikazio-bitarteko elektronikoren bat erabiliz beste egiaztagiri bat bidal diezaiola eskatzea onuradunak Laboral Kutxari.</p> <p>Agindu-emaileak onuradunarekin harremanetan jartzeko edo komunikatzeko ekintza bereziak eskatzea eta, ondorioz, eragiketa automatikoki ezin egin ahal izatea.</p> <p>Bezeroak SWIFT bidezko hartu-agiria eskatzen duenean.</p> <p>(Jarraitu egiten du)</p>	---	6,00 €/agiria	
	---	6,00 €/agiria	
	---	0,30 €/bidalketa	
	---	0,30 €/bidalketa	
	---	12,00 €	
	---	3,00 €	

KONTZEPTU OSAGARRIAK	SHA eta BEN transferentziak izapidetzeko komisioa		
	%o	Gutx.	
<p>Banakako egiaztagiria.</p> <p>Bezeroaren eskaerari jarraiki, Laboral Kutxaren ohiko lan-ordutegitik kanpo transferentziak likidatzen direnean, edozein bitarteko erabiliz.</p> <p>Transferentziak deuseztatzea, aldatzea edo itzultzea.</p> <p>Exekutatutako transferentzia deuseztatu, aldatu edo itzultzen saiatzeko bezeroak agindutako edozein izapide sartzan da zerbitzu horretan. Entitateari egoztekoak ez diren arrazoiengatik izapideek emaitzarik lortu ezean ere kobratuko egingo da.</p> <p>Ikerketa- edo argibide-eskaera bakoitzeko</p> <p>Eskaera entitateak transferentzia jaulkitzeko hitzartuta duen epealdiaren barruan egiten bada bakarrik kobratu ahal izango da. Transferentziaren onuradunari kobratzekotan, zerbitzuak ere hark eskatua behar du izan, edo, bestela, transferentziaren azpiko negozioari egoztekoa.</p>	---	3,00 €	
	10,00	36,00 €	
	---	36,00 €	

Gainera, gastu hauek ere kobratuko dira:

KONTZEPTUA	Gastuak
SWIFT (1. oharra)	12,00 €
Posta	Indarreko posta-tarifa ofizialen arabera

1. oharra: 924/2009 Arautegia aplikazio eremuan, gastu hauek ez dira aplikatuko. (260/2012 Erregelamenduak (EE) aldatua)

57. EPIGRAFEA: ABALAK ETA BESTE BERME BATZUK.

57.1.- Atzerriko abalak eta beste berme batzuk

Epigrafea	Eragiketa-mota	Komisioa			
		Formalizazio bakoitzeko (behin bakarrik)		Arrisku bakoitzeko (hiru hilean behin)	
		Abalaren zenbatekoarekiko %o	Gutx. euroak	Abalaren zenbatekoarekiko %o	Gutx. euroak
57.1.1	Abal-aurreak	5	60,00	10,00	40,00
57.1.2	Abal teknikoak	5	60,00	15,00	40,00
57.1.3	Abal ekonomikoak				
	➤ Komertzialak				
	▪ Urtebetera arte	5	60,00	15,00	40,00
	▪ Urtebetetik gora	5	60,00	15,00	40,00
	➤ Finantzarioak				
	▪ Urtebetera arte	5	60,00	15,00	40,00
	▪ Urtebetetik gora	5	60,00	15,00	40,00

1. oharra: Epigrafe horretan bezeroak hirugarrenen aurrean hartutako obligazioak edo konpromisoak beteko dituela ziurtatzen duten kauzio, berme eta fidantza guztiak sartzen dira.
2. oharra: Euskadiko Kutxak, hala eskatzen duen erakundearen aurrean, bere garaian behin betiko abala emateko hartutako konpromiso irmoaren adierazleak dira aurreabalak.
3. oharra: Hauek hartzen dira abal teknikotzat: Kutxa abal-emaileari ordaintzeko obligaziorik sortzen ez diotenak. Baina abalatuak hartu dituen konpromisoak (aldi batez salgaiak inportatzea, lehiaketa eta enkanteetan parte hartzea, obrak edo hornikuntzak burutzea, saldutako makineriak egoki funtzionatuko duela ziurtatzea, eta abar) betetzen ez baditu, Kutxa izaten da erantzulea. Oro har, horrelako konpromisioak Erakunde Publikoekin hartzen dira.
4. oharra: Abal ekonomikoak: Komertzialak edo finantzarioak izan daitezke. Lehenak eragiketa komertzialetan erabiltzen dira eta edozein motatako ondasunen salerosketen, ordainketa zatikatuen edota aurretiaz emandako zenbatekoen ondorioz atzeratutako ordainketari erantzuten diote. Bigarrenek bezero abalatuak beste entitate batzuetatik lortutako kreditu eta maileguei erantzuten diete, horrelako abalen bidez kutxa abal-emailea ordaintzera behartuta geratzen baita. Normalean abalak, finantza-letrak edo kreditu zein mailegu-polizak izaten dira.

- 5. oharra:** Arrisku-komisioa hiru hilean behin kobratuko da, kasuan kasuko hiruhilekoa hasi baino lehen.
Abal edo bermearen agiria itzultzen denean edo, horrelakorik ez badago, dokumentu fede-emailaren bidez eta Kutxaren onespenearekin ezeztatzen denean utziko zaio komisioa kobratzeari.
Abala indarrean dagoen obligazio nagusiaren gain kalkulatu da, obligazio hori ez betetzetik sor daitezkeen obligazio subsidiario eta osagarrien zenbatekoa ere kontuan hartuta.
- 6. oharra:** Bermea gure bankuaren kontra-bermea eskatzen duen atzerriko entitate baten aurrean ematen bada, eragiketa ezberdintzat hartuko dira eta bakoitzak bere komisioak sortuko ditu.

**58 EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK.
 AGERIKO GORDAILUAK ATZERRIKO MONETAN.**

Epigrafe honetan jasotako tarifak gehienezkoak dira, eta bezero guztiei aplikatuko zaizkie (kontsumitzen dutenei eta kontsumitzen ez dutenei).

58.1.- Dibisa Kontuak Administrazioa eta Mantentzea

Epigrafea	Eragiketa mota	Komisioa	
		€	Minimoa
58.1.1	Mantentzea (2. oharra)	8 € (hiru hilean behin)	
58.1.2	Idazpen bakoitzeko (5. oharra)	0,18 €	
58.1.3	Manipulatzea (3. oharra)	%o 20	9

1. oharra. Diru-ateratzeak edo ordainketak ordainketa, kobrantza, intsuldaketa... kontukoa ez den beste moneta batez egiten badira, %o 15eko erosketa-salmenta komisioa jasoko da kontuko (gutxienez 9 €) eta %o 20koa kutxako (gutxienez 9 €).
2. oharra. Kontzeptu horretako zordunketak kontuaren aldizkako likidazioa egiten denean egingo dira eta kitatzen den aldiari dagokion partea zordunduko da.
3. oharra. Komisio hori billeteak entregatu edo jasotzen direnean kobratuko da, dibisa bereko kontu batean zordunduz edo kargatuz.
4. oharra. Bezeroak Eperako Ezarpen baten kitapen aurreratua eskatuz gero, Euskadiko Kutxak kontua kitatu ahal izango du. Halere, kitapen-egunetik itunduriko mugaegunera arte itzuli den printzipalaren % 4ko kenketa egingo da. Kenkari hori, inolaz ere, ez da izango Eperako ezarpen horrek sorturiko interesen zenbatekoa baino handiagoa.
5. oharra. Honako eragiketa hauetan ez da komisorik kobratuko:
 - a) Txkeak zorduntzea
 - b) Komisioak zorduntzea
 - c) Eskudirua ateratzea eta sartzea
 - d) Interesak ordaintzea / zorduntzea

58.2.- Konpentsazio Eragiketak

Konpentsazio-komisioa
Konpentsatutako zenbateko osoaren %o 2ko konpentsazio-komisioa kobratuko da, 18,03 € guztira. Diferentzialari kobratzeko edo ordaintzeko erabili den bideari dagozkion komisioak aplikatuko zaizkio.

59. EPIGRAFEA: EPERAKO GORDAILUAK ATZERRIKO MONETAN.

1) KITAPEN AURRERATUAGATIKO KOMISIOA

Bezeroak Eperako Ezarpen baten kitapen aurreratua eskatzen badu, Entitateak kitapen hori egin ahal izango du, itzultzen den tronkoaren gainean urteko % 4ko kenketa eginez. Kenketa hori kitapen-egunaren eta hitzartutako mugaegunaren artean dagoen epean egingo da eta ezin izango du, inola ere, Eperako Ezarpen horren ondorioz sortutako interesen zenbatekoa gainditu.